

OIARTZUN / 'Anarkerria' lana aurkeztuko da gaur liburutegian 25. urteurrena ospatzeko asmoz

Gaur arratsaldeko 19:00etan, Arditurriko Minak Ingurugiro Elkarteak 'Anarkerria' liburua aurkeztuko du Manuel Lekuona bibliotekan, liburuaren lehen argitalpenaren 25. urteurrena ospatzeko asmoz.

Mark Legassek 1986an Egin egunkarian kaleratutako gutun bati beste sinatutako kolaborazio batek erantzun zion, Jakue Paskual gaztearenak, hain zuzen. Bi pentsalari horien ideiek bestearengan sorrarazitako liluraren ondorioz, Anarkherria izeneko obra sortu zuten. Hogeita bost urte eta gero, egileetako batek, Jakue Pascualek, orduko testu fresko, akrata, ganberro eta sakonaren inguruko edizio kritiko hau idatzi du.

Liburu hark 1980ko hamarkada markatu zuen Euskal Herrian, eta itxuraz elkarrengandik hain urrun zeuden bi pentsamenduren lotura hobeki ulertzen lagundu zigun: abertzaletasuna eta anarkismoa.

Bihar, Alberto Peñalbak zuzendutako 2'5 urte anarkerrian, eta aurrera' DVDa aurkeztuko da.